

Nafarroako Gobernua osatzeko hauteskundeetan parte hartuko duten alderdiei proposamenak

2019ko maiatza



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Nafarroako Gobernua osatzeko hauteskundeetan parte hartuko duten alderdiei proposamenak

2015eko maiatzean, Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundearen bezperatan, ELAk dokumentu bat plazaratu zuen, *Nahi dugun aldaketa politiko eta sozialerako proposamenak*. Gero, urte bereko uztailean Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerraren artean iritsi zen *Akordio Programatikoaren* balorazioa egin genuen; hark ekarriko zuen Uxue Barkosek gidatutako Gobernua. Lau urteotan, aurreko aldirian bezala, ELAk Nafarroako Gobernuaren ekintza juzkatu izan du, hainbat arlotan proposamenak egin eta politika publikoetan benetako aldaketaren aldeko mobilizazio soziala bultzatu dituelarik.

Egia da Nafarroako Gobernuaren ekintzak legegaldi honetan hainbat gai nagusitan aurrera egin duela, besteak beste honako hauek:

- Jarrera demokratikoak eta lan munduaren errealitatea aitortzeak eragin du ELA solaskide gisa onartu izana.
- Aurreko erregimen klientelarreko osagaririk txarrenen bukaera, esaterako UGT eta CCOOek jasotzen zuten gainfinantziazioa (hau, noski, ELAk behin eta berriz salatu izan duela gertatu da, baina oraindik ere zenbaitek ez du onartzen ziklo hori amaitu denik).
- Aniztasun kulturalaren eremuan ere aurrerapauso batzuk izan dira (euskarari emandako bultzada), eda bortizkeriaren biktima guztien aitortza egin da.
- Hondakinen Legean, LGTBI edo Berdintasun Legeetan ere aurrerapausuak eman dira, hala nola Skola Programa ere. Eta bereziki ELAk parte-hartze garrantzitsua izan dituen beste bi Lege ere, Toki Maparen Foru Legea, non ELA izan zen enplegua

mantentzearen exigentzia azkeneraino eraman zuen bakarra, eta Kontratu Publikoen Legea, subkontratutako enpresetako langileen baldintzei eusteko Lege garrantzitsua. 2014. urtean ELAk jasotako 14.635 sinadurengatik ez balitz, sekula lortu izango ez zena.

Haatik, kontu hauek eta aipa litekeen beste hainbat alde batera utzita, Nafarroako Gobernuaren ekintzak ez die erantzunik eman 2015ean plazaratu genituen aldaketa sozialeko eskariei. Konpromiso zehatzak aipatzen genituen 11 puntuak erreparatuz gero, emaitza ez da bat ere pozgarria. Hau gertatu da zerga- eta aurrekontu-politikan ez delako benetako aldaketarik egin:

Zerga-politikan ez da hobetu funtsezko kontu batean: fiskalitatearen egoerari buruzko informazio publiko, irisgarri eta egokia ematea. Arau aldaketak azalekoak izan dira, eta ez dira leheneratu azken hamarraldietan errenta altuen, enpresen eta kapitalen mesedetan ezarritako zerga beherapenak. Iruzur fiskalaren kontrako borroka ere ez da gobernuaren lehentasuna izan. Areago, enpresek Sozietateen Zergan gutxiago ordaindu dute 2018an 2014an baino (hots, gobernu aldaketa izan baino lehenago), eta EBrekiko zerga-presioan dagoen alde 1.800tik gora milioi eurorena da.

Halaber, Espainiako Gobernuarekin adosten jarraitu da gastu-araua eta defizit eta zor publiko mugak; honek Nafarroako aurrekontuak baldintzatzen ditu, aurrerago ikusiko dugun moduan. Hautu honen ondorioz, politika neoliberaleri eutsi zaie, eta hauek Nafarroa Europako azken postuetan kokatzen dute gizarte-babesari, osasungintzari edo hezkuntzari dagokionez.

Maiatzaren 26ko Foru Parlamentuko hauteskunde deialdia dela eta, ELAk uste du beharrezkoa dela hainbat neurri edo konpromiso proposatzea datozen lau urteetan Nafarroan agintzeko hautagai izango direnei.

1. Zerga-politika

- Iruzur fiskalaren kontrako borroka. Gehenez lau urteko epean soldatapeko ez diren errenta guztiak ikuskatu. Horretarako behar diren giza-bitartekoak kuantifikatu eta epe konkretuetan planifikatu.
- Iruzurraren aurkako bulegoa sortu, diziplinartekoa eta instituzioartekoa, zeinak ogasunaren, polizia fiskalaren eta fiskaltzaren ekintza koordinatuko duen.
- PFEZaren erreforma: errenta guztiek (baita kapitalenak ere) gutxienez lan errentek adina zerga ordaintzea; galdutako progresibotasuna berrezarri (%56ko tasa marjinala barne); erregularrak ez diren errententzako salbuespenak bertan behera utzi eta egutegi konkretu bat eginez kenkaririk erregresiboenak kentzeko bidean aurrera egin.
- Sozietateen gaineko Zergaren erreforma: %35eko tasa nominala ezarri; gutxieneko zergapetzea, efektiboa eta berehalakoa, %24an ezarri, eta kenkari fiskalen mailakako desagerrarazi.
- Informazioa eta parte hartze soziala: Ekitaldi arteko informazio funtsezkoa, xehe-tua eta gonbaragarria eman, zerga bakoitzaren kudeaketaren eta ikuskaritzaren inguruko parametro nagusiekin; iruzur fiskalari buruzko aldizkako ikerketak egin.

2. Aurrekontu-politika eta politika publikoak

- Aurrekontu-politika bertan erabakitzea; uko egin behar zaio (inola ere ez hitzartu) espainiar estatuan ezarritako gastu-arauari eta zor eta defizit publiko mugei. Azken urteotan Nafarroako Gobernuak horiek onartu ez ezik espainiar Gobernuarekin adostu egin ditu, horrela uko eginez bere eskumenei; hau politikoki onartezina da eta ondorio sozial larriak izan ditu. ELAk hau salatu du eta esan du diru-sarrerak ze-

haro gehituko dituen zerga-erreformarik gabe eta estatuko aurrekontu-marko hori onartuz gero ezinezkoa dela aurrekontu-politika soziala egitea. Bestalde, salatu dugu oso larria dela ezker politikoak jokatibide hau ontzat ematea, baita hortik eratorritako aurrekontu- eta zerga-politikak ere.

- Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren 67.2 artikulua I atala indargabetu behar da, autogobernua mugatzen baitu bertan erabakitako aurrekontu-politika garatu ahal izateko.
- Erakunde sozial eta sindikalekin batera mekanismo parte-hartzaileak ezarri, trahite hutsetik haratago jendarteak aurrekontuen lehentasunez eragin eta iritzia eman ahal dezan.
- Ikuspuntu feminista txertatu politika publikoak diseinatu, egin, aplikatu, jarraipena egin eta ebaluatzerakoan.
- Datorren Nafarroako Gobernuak autogobernua defenditu eta eskumenen transferentzia aldarrikatu beharko luke. Garrantzitsua da salatzea Estatuarekiko dagoena ez dela berdinen arteko alde biko harremana. Horra zer gertatu den trafikoa-ren transferentziarekin edota Auzitegi Konstituzionalean inpugnatu diren 19 lege nafarrekin.

3. Zorraren auditoretza

- Zor publikoaren herritar auditoretza bultzatu eta erraztu, eta izatekotan zilegi ez den zatia atzeratu, berregituratu eta, behar izanez gero, ez ordaintzeko urratsak egin. Zorraren auditoretza egiten denean zorraren jatorria analizatzen da, zergatik sortu zen, zertarako baliatu zen, noren onerako, bere gardentasuna, izan litezkeen irregulartasunak, etab. Prozesu soziala izan behar du, non administrazioei laguntzea dagokien beharrezko informazioa emanaz.
- Instituzioen soberania baliatu zilegi ez diren zorrak ez ordaintzea erabakitzeko, hartzekodunen ardura nabarmenduz.

4. Osasun eta hezkuntzako gastu publikoa

Europar Batasuneko batez besteko mailarekiko dagoen gastu publikoaren diferentziala, desagerrarazi:

- Osasun arloan Europar Batasuneko batez besteko gastu publiko maila Nafarroako Gobernuarena baino %28,2 handiagoa da. Honek esan nahi du Nafarroan urtero sail honetara 429,2 milioi euro gutxiago bideratzen dela.
- Hezkuntzan, berriz, EBko batez besteko gastu publikoa Nafarroako Gobernuak egiten duena baino %49,9 handiagoa da. Honek esan nahi du hemen urtero 343,4 milioi euro gutxiago gastatzen direla.

5. Eskubide sozialak

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako legea onartu, Eskubide Sozialen Kartak egindako HEL proposamenean jasotako edukiekin. Nafarroako gobernuak galarazi egin zuen sinadurak biltzen hastea esanez bere proposamenak (besteak beste, Bermatutako Errentaren hobekuntza handia, oinarrizko zenbatekoa LGSaren %100ean ezarriz, eta beharra duten guztiek alokairu sozialeko etxebizitza izateko eskubidearen aitortpen efektiboa) gastu handiagoa eragingo zutela, hau gauza jakina delarik.

Duela gutxi onartutako Berdintasun Legearen zinezko garapena, horretarako beharrezko den aurrekontua jarritz. Legearen edukiak zehaztu behar dira aurrera eraman beharreko neurri edo ekintza positiboekin. Halaber, bermatu behar da mugimendu feministaren parte hartzea legearen aplikazio eta ebaluaketa fasean.

Pentsiodunen kolektiboek egindako aldarriei erantzuna ematea, batik bat gutxieneko pentsioa 1.080 euroraino osatzeari dago-kiona.

Legez ezartzea honako eskubideen aitortza:

- Menpekotasun egoera guztien estaldura, zerbitzu publiko unibertsal eta doako baten bitartez.

- Sare publikoan eskaintzea bertan 0-3 zikloan eskatzen diren hezkuntzako leku guztiak.

- Lan, famili eta banakoaren kontziliaziarako laguntza ekonomiko duinak ezartzea.

6. Bertako enplegu politika

Osasun, hezkuntza edota gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren gorakadak, eskubide sozial berrien aitortzarekin eta prestazio sozialak jasotzearekin batera, sektoreotako enplegua asko gehitzea eragingo luke; enplegu horrek lan baldintza duinak izan behar ditu, eta biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko baliatu behar da, batik bat kolektibo ahulenen kasuan. Beraz, Gizarte- eta zerga-politika errotik aldatzeak enplegu gehiago eta hobe dakar.

Gainera, Nafarroako Gobernuak honako konpromisoak hartu beharko lituzke:

- Lan prekarietatearen aurkako borroka eta laneko segurtasun eta osasunaren babesa, kontratuetako iruzurrari jazarritz; honetarako giza-bitartekoak eta ikuskapenak zein zigorrak asko gehitu behar dira. Horregatik Lan Ikuskaritzaren transferentzia lehentasuna izan beharko litzateke.

- Prebentzioko lurralde-ordezkariaren figura ez ezartzea, benetan prebentziarako baliagarri ez den finantziario sindikalerako bide hutsa baita.

- Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua-ren funtzionamendua aldatu, laneko istripu eta gaixotasunei aurre egiteko tresna egokia bihur dadin.

- Kontrataziarako enpresei ematen zaizkien laguntzak kentzea, ez baitute enplegurik sortzen. Enplegu politika bertan garatzea; ez da onartu behar prestakuntza, lan bitartekaritza eta arlo hauetako politiken inguruko erabakiak espainiar gobernuaren menpe egotea.

- Nafar Lansarearen politikak goitik behera aldatu. Enplegu-zerbitzu publikoak indartu, bertan behera utziz erakunde pribatuei lan bitartekaritza egin dezaten ematen zaien finantziarioa eta zerbitzu publikoak enplegurako prestakuntzan duen eginkizuna

sustatuz, Hezkuntzaren esku dauden baliabideak probestuz. 2018an eman diren enplegurako prestakuntzako 602 ikastaroetatik soilik 10 eman dira arlo publikoan.

- Hiruparteko kudeaketa izango duen enplegurako formazio eredia garatu, erabakiak talde bakoitzeko gehiengoaren arabera hartuz. Prestakuntzarako kuotak kudeatu.

- Politika publikoak eta neurri eragingarriak ezarri emakume eta gizonen arteko desberdintasun estrukturaleri aurre egiteko. Nafarroan emakume eta gizonen arteko soldata arrakala %28,3koa da (emakumeek urtean batez beste gizonek baino 8.164 euro gutxiago irabazten dute). Kalitatezko enpleguaren aldeko politikak egin behar dira, batik bat sektore prekario feminizatuen alde.

- Lanaldi murrizketa bultzatzea, soldata jaitsierarik gabe.

- Inbertsio publikoa sektore feminizatuetan kalitatezko enplegua sortzeko; ahal dela, jendarte eta ingurumen ikuspuntutik iraunkorra.

- Behar besteko bitartekoak jarri sexu-jazarpenari edo sexua medio emakumeek lantokietan pairatzen duten jazarpenari aurre egiteko.

Enpleguaren sorreran esanguratsuak izan behar dira hurrengo urteetan "enplegu berdeak" izenekoak, klima aldaketari aurre egiteko alternatibarik iraunkorrena baitira. Ingurumenaren zaintza, ingurune degradatuen berreskurapena edo ekoizpen ereduaren aldaketari lotuta daude:

- Energia. Eraikinak birgaitzeko eta energia eraginkortasuna areagotzeko laguntzak emanez eraikuntzako lanpostu asko iraunkoragoak izango liriateke. Eraikin publiko eta pribatuetan energia berriztagarria kontsumitzeko eta energia berriztagarria sortzeko azpiegitura txikiak bultzatuz ere lanpostu berdeak sortzen dira, baita biomasa bidezko berogailu sistemak edo teilatuetan plaka fotovoltaikoak instalatuz.

- Garraioa. Industrialdeetan mugikortasun iraunkorrerako planak egin, garraio publiko

sarea populazio gune bakartuetara hedatu, garraio publiko sarearen ibilgailuen elektrifikazioa areagotu...

- Hondakinak. Hondakinak murrizteaz gain, kudeaketa iraunkorrek lanpostuen sorrera dakar. Hondakinen gaikako bilketa areagotuz lanpostu asko sortuko liriateke, baita berrerabiltzeko sarea eta ekipamendua sortuta ere. Objektuen jasotzea, konponketa, bigarren eskuko merkaturatzea eta trukeari loturiko zerbitzuak garatu behar dira.

- Basozaintzak, batez ere pinu landaketek, gaur egun duten krisiari aurre egiteko, basogintza iraunkorra da irtenbide bakarra: bertako espezieak, bizitza ziklo luzeagoa dutenak eta balio erantsi handiagokoak bultzatu eta laguntzea. Baita energia berriztagarria sortzeko biomasaren ekoizpen iraunkorra bultzatzea ere.

- Elikadura burujabetza. Elikadura kate osoan hartu daitezke neurriak elikadura burujabetza bultzatuz lehen sektore indartsu eta iraunkor bat izateko: Nafarroako Gobernuaren menpe dauden jantokietan elikadura agroekologikoa eskaintzea (aterpetxeak, zaharren egoitzak, eguneko zentroak, ...), nekazaritza agroekologikoa eta tradizionalari laguntzak ematea, erosketa publikoetako pleguetan eredu honen alde egitea, etab.

7. Trantsizio ekologikoa

Ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik aztertuta, azpiegitura, lurralde eta ingurumen politikak ez dira iraunkorrak. Beharrezkoa da neurriak hartzea benetako iraunkortasuna lortzeko:

- Dauden errepideen egoera hobetzea, berririk eraiki gabe, eta mugikortasun planetan intermodalitatea, akzesibilitatea eta garraio sistemaren eraginkortasuna bultzatzea.

- Herritar guztiek behar duten garraio publiko zerbitzua izatea. Horretarako lurralde osoan zehar garraio publiko sarea garatu eta hobetu behar da. Garraio publikoa mugikortasun beharretarako alternatiba onena bihurtu behar da.

- Energia berriztagarrien sorkuntza bultzatu behar da, modu dezentralizatuan energia sortu eta kontsumituz. Bai auto-kontsumorako, bai modu kolektiboan kontsumitzeko edota sare elektrikora bideratzeko. Mugikortasuna elektrifikatu behar da, energia fosil bidezko elektrizitatea sortzeari utzi eta energia berriztagarrietan oinarritu behar da sistema.

- Lurralde osora zabaldu behar da jatorrian eta derrigorrez bereizitako hondakin bilketa eredua, %80tik gorako birziklapen tasak ematen baititu. Bilketa eredu hau konpostajearekin, balorizazio materialarekin eta ezabatze eredu iraunkorrekin konbinatu behar da, eta balorizazio energetikoa eta erraustegiak behin betiko baztertu behar dira.

- Gaur egun berrerabili eta birziklatzen ez diren materialak aprobetxatzeko proiektuak bultzatzea, %100 birziklatzeko helburura gerturatu eta benetako ekonomia zirkularrerantz pausuak eman daitezten.

AHT geldiarazi; azpiegitura honetara ez da diru gehiago bideratu behar. AHTa eraikitzeko interesa obra publikoak eraikitzean da goen negoziagatik soilik uler daiteke. Alde batera utzi behar da garapena lan faraonikoekin lotzen duen politika. Lehentasuna pertsonen eta naturaren zaintza da.

- Ingurumenean eragin handia izan dezaketen proiektuak ez egiteko konpromisoa, esaterako Aroztegia Jauregia edota Itsaso-Castejón-Muruarte goi-tentsioko linea.

- Bardeetako Tiro Poligonoa desegiten hasi. Horretarako Bardeen erabilpen militararako baimena kentze aldera egin beharreko urrats politiko eta juridikoak egin, horrela lursail hau herritar nafarren esku gera dadin; tokiko administrazioentzat plan bat egin Defentsa Ministeriotik datorekin finantziazioaren galera osatzeko.

- Castejongo Zentral Termikoaren itxieran inplikatu, horrela Auzitegi Gorenaren epaia betearaziz.

8. Euskara

- Euskararen ofizialtasuna Nafarroa guztian bermatu.

- Euskararen normalizazioa lortze aldera hizkuntz-politikan urrats berriak egin, ELAk "Nafarroan Euskararen Lege berri baterako proposamenak" izenburupean argitaratu zuen dokumentuak aipatzen duen moduan. Politika integrala izan beharko litzateke, honakoak aintzat hartuz: hezkuntz-sistema, administrazioaren eta arlo sozioekonomikoaren euskalduntzea, euskarazko hedabideen babes, etab. Honek eskatzen du egungo politika goitik behera aldatzea.

9. Sakontze demokratikoa, gardentasuna eta parte hartzea

- Politika publikoak erabakitzerakoan parte hartze sindikalari benetako aukerak eman. Eredu formalean sindikatu bakoitzaren ordezkartza maila berariaz errespetatu behar da.

- Ikuspuntu feminista duten aurrekontu parte-hartzaileak.

- Erreferenduma baliatzea erabaki politikoak hartzerakoan parte-hartzeko bide gisa, batez ere eztabaida sozialik biziena sortzen duten gai nagusietan.

- HEL arautzen duen legea aldatu bermatzearen Parlamentuan derrigor eztabaidatuko direla eskumen-markoan sartzen diren ekinbideak; egun dauden oztopo guztiak kendu.

- Agiri ofizialak eskuratzeko aukera bermatu. Informazio hau oro har publikoarentzat eta erakunde sozialentzat eskuragarri izan behar da.

10. Nafarroako erregimen klientelarra behingoz desegin

- Eredu klientelarra desegin, bai eta diru publikoari esker azken hamarraldietan eraiki diren egiturak ere.

- Elkarrizketa Soziala delakoarekin zerikusia duen guztia desagerrarazi, esaterako Elkarrizketa Sozialeko Kontseilua.

- Nafarroako Lan Auzitegia birsortzea Nafarroako errealitate sindikalarekin bat etor dadin.

11. Lan baldintzak arlo publikoan

- Negoziazio kolektiborako zinezko eskubidea berreskuratu eta soldata arrakala gainditu.

- Benetako berdintasun planak egin, zeintzuk oinarritzat diagnostiko integrala izango duten, langileekin negoziatuko diren eta neurri zein eduki nahikoa izango duten.

- Alde bakarretik ez jokatzeko eta jokorau demokratikoak errespetatzeko konpromisoa (gehiengoak akordioak, etab.). Negoziazio kolektiborako benetako eskubidea berreskuratu eta dauden akordioetan administrazioek alde bakarreko erabakiz aldatutako edukiak leheneratu.

- Enplegu publikoa sortu. Langileak lehenengo egunetik ordezkatu; azken urteetan amortizatutako lanpostuak berreskuratu. Egiturazko postu eta aurreikusitako baja begetatibo guztien enplegu eskaintza publikoa egin.

- Zerbitzu publiko guztietako beharrezaneko analisia egin, behar baino langile gutxiago duten arloak osatzeko. Zerbitzu publikoen pribatizazioa berehalaz bertan behera utzi.

- Soldatak. 2010etik hona galdutako erosahalmena berreskuratu.

- Azken urteetan galdutako lan baldintzak berreskuratu. Galdutako baldintzak berrezarri (egutegiko jaiegunak, Hezkuntzako ratio eta eskola-orduak, iruzurrean egindako kontratuak, abusuzko bitarteko egoerak, etab.).

- Laneko segurtasun eta osasun arloa hobetu. Lantoki publiko guztietan prebentzio araudia oso-osorik bete eta herrilan publikoetan betetzea galdegin, beteko dela bermatzeko bitartekoak jarriz eta arauak

hausten dituzten enpresak zigortuz. Gaixotasun arruntagatik aldi baterako ezintasunen kudeaketa eta kontrola mutualitateen esku gera dadin eragotzi, eta hau gertatu den kasuetan egoera leheneratu.

- Lan eta famili bizitza kontziliatzeko neurriak. Neurri konkretuak hitzartu arlo honetan, zaintzaren erantzukidetasuna eta denboren erabilpen arrazionala sustatuz (ordutegien malgutasuna, langileen eskubideak bermatuz...).

- Haurdun dauden edo amatasun baimena duten emakumeak kontratatzeke aukera bermatu. Egoera horietan izan direlako lan egiterik izan ez duten emakumeei antzintasuna atzera eraginez aitortzea.

- Promozio bideak berrikusi, batik bat lanorduz kanpo egindako formazioari balioa kenduz.

- Aitatasun eta amatasun baimenak parekatu; hauek pertsonalak eta besterenezik izan behar dira. Neurri hau administrazioeko langile guztientzat izan beharko litzateke posible.

- Ordutegi malguak bermatu hau egingarria den zerbitzu guztietan. Baldintzak sortu lanaldi murrizketak eta eszedentziak borondatezkoak izan daitezzen.

- Sektore azpikontratatu askotan emakumeak gehiengoa dira, euren lanpostuak balio gutxiago dutela uste baita, eta pribatizatu eta esternalizatzeko errazagoak dira. Emakumeek eremuotan pairatzen duten soldata diskriminazioa amai dadin honako neurriak galdegiten ditugu:

- Soldata apalagorik ez onartu, eta edonola ere gutxieneko ordainsaria 1.200 eurorena izango dela bermatu.

- Administrazioetan indarrean dagoen lanaldia bermatu.

- Lanpostua bermatuko duten erreber-tzio prozesuak eta, hala ez bada, lan baldintzak parekatzeke prozesuak.

- Gizonezkoek egiten dituzten antzeko lanetan baldintza berdinak bermatu, horretarako behar besteko finantziarioa ja-

rriz. Alderatzea posible ez den eremuetan, %25eko soldata igoera finantzatu.

- Lanaldi partzialak mugatu edo osatu; lehentasuna lanaldi osoari eman.
- Enpresek lanaldi partzialesan kontrata-tzeagatik jasotzen dituzten laguntzak bertan behera utzi.
- Azpikontratutako zerbitzuak. Haue-tan eragin behar da administrazioak zu-zenean ematea, errespetatuz egungo langileei lanpostuan jarraitzeko zor zaien eskubidea. Dagozkion urratsak egin lan baldintzak pareka daitezten azpikontrata-tutako langile (enpresa publiko eta parti-zipatuetakoak barne) eta enplegatu publikoen artean.
- Zerbitzuak lehiaketa publikora atera-tzen direnean Kontratu Publikoen Legea aintzat hartu; beharrezko lehentasuna eman azpikontratetako langileen bal-dintzak duintzeko helburuari.